

## / Nabarmenezkoak

- > GetxoBat udal-kudeaketako sistema digitalaren balantze positiboa (2. or.)
- > SARENESK emakume ekintzaileen sare egonkor gisa finkatu da (4. or.)
- > Getxon inauguratuko da berriro Laboral Kutxa Bilbao Surf Film Festival (5. or.)

\*Eusfera ekimen berriak haurren unibertsoa euskaldunagoa izatera lagunduko du (4. or.)



**Opera.** Hilak 21, larunbata, 19:30ean Muxikebarrin, "L'elisir d'amore", L.G. Artist konpainiarekin, Moldaviako Opera Nazionalarekin lankidetzan. 30 euro.

**Antzerkia.** Hilak 20, ostirala, 20:00etan Muxikebarrin, "Las Reinas kanpina", La Cuerda teatroa eta Ttipia Kulturarekin. 10 euro.

**A-**  
**GENDA**

## Milioi bat euro inguruko inbertsioa egingo da Salsiduko arrapala mekanikoak berritzeko

Udalak kontratu baten lizitazioa onartu du, Algortako Salsidu kaleko arrapala mekanikoetako ekipo elektromekanikoen modernizazio integralerako, 993.347 euroko lizitazio-oinarriarekin (BEZa barne). Lan horiek egiteko gehieneko epea 32 astekoa izango da.

Kontratuaren helburua da dauden bederatzi arrapalen segurtasuna, fidagarritasuna eta funtzionamendu egokia bermatzeko ekipo berriak hornitzea eta instalatzea, arrapala bakoitzean hautemandako kalteen arabera. Kontratuaren pleguak aurreikusten du arrapalen eraginkortasunerako funtsezko elementuak diren osagaiak ordezkatzeko.

Gaur egun, pixkanaka pixkanaka Salsiduko arrapala guztiak martxan jartzeko lanean jarraitzen du Udalak. Gaur egun, dauden bederatzi arrapaletatik bost berrakibatzea lortu da, eta gainerako lauetan esku hartzen jarraituko da, datozen asteetan martxan jar-



tzeko, ahal den neurrian. Ekipoen ordena eta funtzionamendua berreziki konplexua izaten ari da, instalazioak zeuden egoeraren ondorioz.

### Kalte-ordain erreklamazioa mantentze-lanetako enpresari

Udalak 538.651 euroko kalte-ordaina erreklamatzeko prozedura hasi du duela urtebetera arte ins-



talazioak mantentzeaz arduratzen zen enpresaren aurka, arrapalak entregatu zireneko egoeratik eratorritako kalte-galerengatik, kontratuaren betebeharrak ez zirela bete iritzita.

Halaber, kontratua indarrean zegoen bitartean hainbat aldiz zigortu zen enpresa hori, eta dagoen fidantza konfiskatu zaio.

## M21aren inguruko jarduerak

Bizikidetzaren eta aniztasunaren alde lanean jarraitzea, izango da Udalak martxoaren 21ean ospatzen den Arraza-diskriminazioa ezabatzeko Nazioarteko Eguna dela eta antolatutako jardueren helburua. Mihaela Jilavu Kultur artekotasun eta Immigrazioko zinegotziak nabarmendu duenez, "Arrazakeriaren aurkako Getxo eraikitze konpromisoa berresten dugu, non elkarbizitza eta aniztasunarekiko errespetua errealitate izango diren pertsona guztientzat. Arrazakeriaren eta gorroto-diskurtsoen aurrean, enpatian, berdintasunean eta giza eskubideen defentsa irmoan oinarritutako erantzun kolektiboak eraikitzen jarraitu behar dugu".

Iftar jaiak emango dio hasiera egitarauari martxoaren 14an, larunbatean, 17:00etatik aurrera, San Martin elizako txokoan, Getxo Bizilagunak udal programaren barruan, eta Egizu, Ibilki, Agharas eta San Nikolas Zabalik elkarteekin laguntzarekin. Bestalde, martxoaren 18an, Zurrumurruek aurkako giza liburutegia: topaketa eta elkarrizketa gunea izeneko jarduera izango da, 17:30ean, Romo Kultur Aretoan, adinekoentzat. Izenematea: RKE / 944 66 00 22. Hilaren 25ean, 18:30ean, atzeritarren ezohiko erregularizazioari buruzko hitzaldi bat egingo da Villamonteko Kultur Aretoan. Eta martxoaren 16tik apirilaren 17ra Irregularitasuna indarkeria anizkoitza eta deszentralizatua da izeneko erakusketa ikusi ahal izango da Algortako azokan, Mugarik Gabeko Etorkinak GGKEaren eskutik. Bere helburua da emakume etorkinek, batez ere zaintzaren eta etxearen eremuetan lan egiten dutenek jasaten dituzten indarkeria eta eskubideen urraketa mota desberdinak ikusaraztea eta horiei buruz sentsibilizatzea. Gogoratu, martxoaren 30ean Etxeko Langileen Nazioarteko Eguna izango dela.



## San Nikolas plazako komunak berriz ireki dira, erabat birgaitu ondoren

San Nikolas plazako komun publikoak berriro zabandu ziren pasa den astelehenean, hilaren 9an, horien birgaitze integrala amaitu ondoren. Instalazio garbiak, eraginkorrak, erosoak, irisgarriak eta inklusiboak izateko egin dira berritze lanak. Proiektua 140.081 eurotan esleitu zen (BEZa barne). Komun barruko banaketa berria da, irekia-

goa eta argiagoa, kanpotik hobeto ikusteko eta, hortaz, segurtasun sentsazio handiagoa izateko. Horrez gain, mugikortasun urria duten pertsonentzat egokitutako bi kabinak prestatu dira. Bestalde, komunak berritzearekin batera, eta komunak gauz itxi ahal izateko, plazako lurpeko aparkalekurako sarbide berezia sortu da.



## MARTXOAK 12 OSTEGUNA

**Zinemabarrri.** 19:00etan, Muxikebarrin, José Mari Goenaga eta Aitor Arregiren "Maspalomas" (euskaraz, gaztelarazko azpititulekin). 16 urtetik gorakoentzat. Sarrerak agortuta.

## MARTXOAK 13 OSTIRALA

**Kontularien kluba.** 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte) ipuinak entzun edo kontatu nahi dituzten helduen topagunea. Gaia: "Cuentos tenebrosos".

**Antzerkia.** 20:00etan, Muxikebarrin, "El amor no se reproduce en cautividad", Gorka Minguez eta Gemma Martínezekin. Sarrerak agortuta.

**Zine Kluba.** 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Radu Juderen "Kontinental'25" (AJB). 16 urtetik aurrera. 3,50 euro.

**"Derechos a los que tengo Derecho" tailerrak.** "Derechos en el trabajo de hogar y cuidados, novedades 2026", 18:00etan, Gurarin. Prestakuntza jaso nahi duten migratuentzat. Doan.

## MARTXOAK 14 LARUNBATA

**Ipar Martxa.** 10:00etan irteera Algortako batzokitik, Getxon barrera ibiltzeko. Beharrezkoa da parte-hartzea baieztatzea (hilarren 10a baino lehen) [nw.itxartu@gmail.com](mailto:nw.itxartu@gmail.com) helbidean. Antolatzailea: Itxartu.

**Storytime for babies. Around the world.** 11:00etan, Romo Kultur Etxea, haurtxoentzako ipuin kontaketa (ingelesez). 3-7 urte. Izena emateko (doan): [getxo@kidsandus.es](mailto:getxo@kidsandus.es) / [algorta@kidsandus.es](mailto:algorta@kidsandus.es)

**Dantza plaza.** 19:30ean, San Nikolas plazan, erromeria herriko dantza taldeekin: Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola.

**Antzerkia.** 20:00etan, Muxikebarrin, "Hamlet" (gaztelaniaz), Territorio Violetarekin. 12 euro.

## MARTXOAK 15 IGANDEA

**Zinemaxiki.** 12:00etan, Muxikebarrin, "Olivia y el terremoto invisible". Adin guztientzat. 2,50 euro.

**Haur zinea.** 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Bill Kwai eta museoaren lapurreta".

Adin guztiak. 2,50 euro.

**Haur ikuskizuna. Musika eta ikus-entzunezkoa.** 18:00etan, Muxikebarrin, "Loa eta Laia". 6 euro.

**Antzerkia. Emakumeak ezzenan.** 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Bendito silencio", Aztiak konpainiarekin. Gonbidapenak agortuta.

## MARTXOAK 17 ASTEARTEA

**Kontatu erretratu hau.** 18:00etan, AJANeren egoitza (Juan Bautista Zabala 6), Getxoko ondarea argazkien bidez identifikatzeko tailerra. 60 urtetik gorakoentzat.

## MARTXOAK 18 ASTEAZKENA

**Kontatu erretratu hau.** 18:00etan, Romo Kultur Etxean, Getxoko ondarea argazkien bidez identifikatzeko tailerra. 60 urtetik gora.

**Hitzaldia.** 18:30ean, Urgull Zentroan, "Sexualidad en personas mayores". Hizlaria: Bea Sever (sexologoa). Antolatzailea: Agorra-EurGetxo. <https://eurgetxo.wordpress.com/>

## MARTXOAK 20 OSTIRALA

**Erakusketa.** Romo Kultur Etxean, "Azala, mantua eta nukleoa", Mikel Gamero Menéndezekin eta Manuel Cruz Lópezekin. Apirilaren 18ra arte.

**Ahozko-narrazioaren eguna. Ipuin kontalariak.** Romo Kultur Etxean, AEDA Espainiako Ahozko Narrazioaren Profesionalen Elkartearen eskutik. **Haurrentzat.** 18:00etan (ele bitan). **Helduentzat.** 19:30ean (gaztelaniaz).

**Antzerkia.** 20:00etan, Muxikebarrin, "Las Reinas kanpina" (euskaraz), La Cuerda teatroa eta Ttipia Kulturarekin. 10 euro.

**Zine Kluba.** 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Asier Altunaren "Karme" (euskaraz). 12 urtetik aurrera. 3,50 euro.

## MARTXOAK 21 LARUNBATA

**Ópera.** 19:30ean, Muxikebarrin, "L'elisir d'amore", L.G. Artist konpainia, Moldaviako Opera Nazionalarekin lankidetzan. 30 euro.

## MARTXOAK 22 IGANDEA

**Zinemaxiki.** 12:00etan, Muxikebarrin, "Sagu eta Pagu". Adin guztientzat. 2,50 euro.

**Haur ikuskizuna.** 18:00etan, Muxikebarrin, "El misterioso caso de Houdini y la habitación cerrada" (antzerkia eta magia), Nacho Diagorekin. 8 euro.

- **Algorta.** Batxilergoko bigarren mailako matematikako irakasle baten bila nabil ikasle batentzat. Tel: 688 876 540.



Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukien egiazko-tasunaren erantzule izango.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

**STAFF** > Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: [getxokoudalaprentsa@getxo.eus](mailto:getxokoudalaprentsa@getxo.eus) Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Joal Express, S.L. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.

getxoBerri

# GetxoBat udal-kudeaketako sistema digitalaren balantze positiboa

Udalak balantze positiboa egin du GetxoBat udal-kudeaketa sistemaren lehen bi hilabetei buruz ezarpenaren. Tresna horrek aukera ematen du administrazio-kudeaketa pixkanaka eraldatzeko, lehen hainbat aplikazioen bidez edo parzialki eskuz kudeatzen zi-

ren prozedurak integratuz. Abian jarri zenetik, sistemak 900 prozedura baino gehiago egiteko aukera eman du, eta 4 aldiz handiagoa da online egin daitezkeen espedienteen kopurua (orain ia 300 izapide).

Gainera, Udalak barne-pres-

takuntzako prozesu bat garatu du antolaketa-aldaketa horrekin batera egiteko, eta, horri esker, hainbat prestakuntza-saio egin ahal izan dira, eta udal plantillan inplikaturako pertsona guztiak hartu ahal izan dute parte.

Amaia Aguirre alkateak adierazi duenez, "urrats garrantzitsua ematen ari gara Udalarekiko harremana errazteko eta gardenagoa izan dadin. Helburua da gero eta izapide gehiago egin ahal izatea azkar eta beharrik gabeko desplazamendurik gabe".

Sistema berria ezartzen jarraituko da datozen hilabeteetan, zenbait udal-aplikazio pixkana-ka integratuz, hori beharrezko urratsa baita administrazio-kudeaketako eredu berria sendotzeko.

Gaur egun abian dauden jardueren artean, honako hauek nabarmentzen dira: errol-da-sistema integratu berria ezartzea, (apiril-maiatzera-ko), kontratazio publikoko plataformarekin integratzea (uda baino lehenagorako), eta SAP sistema ekonomiko-finantzarioarekin integratzea (apiril-maiatzera-ko).

Integrazio horiei esker, udal-arloen arteko koordinazioa hobetuko da, prozeduretan lan-bikoiztasunak murriztuko dira eta administrazio-kudeaketa eraginkorragorantz aurrera egingo da.

## Hiriko biodibertsitate jardunaldia

Martxoaren 21ean, larunbata, hiriko biodibertsitateari buruzko jardunaldi bat egingo da, Ingurumeneko Udal Unitateak antolatuta eta 10 urtetik gorako pertsonen zuzenduta. Hitzaldi-erakusketa batekin hasiko da jardunaldia, 9:30ean RKen, Ignacio Garcia biologo eta naturalistaren eskutik, gure hiriko ingurune naturalei eta Getxoko flora eta faunari buruz hitz egiteko. Ondoren, ibilbide gidatu bat egingo da udalerrian zehar.

Aldez aurretik izena eman behar da [boluenatura@gmail.com](mailto:boluenatura@gmail.com) helbidean.

## Adierazpen Instituzionala Martxoaren 8a dela eta

Emakumeen Nazioarteko Egunaren ospakizuna dela eta, Udaleko Bozeramaileen Batzordeak Adierazpen Instituzional bat onartu zuen aho batez aurreko astean. Horretan Udalak, besteak beste, hurrengo konpromisoak hartu zituen: taldeak sortzea sustatzea, diskurtso misogino eta antifeministei, eta informazio faltsuen hedapenari aurre egiteko; toki-

ko eremutik lehentasunezko kolektiboekin esku hartzea, haien jarrera antifeministak eta maskulinitate toxikoak desmuntatzeko; erresistentzia-aliantzak sustatzea talde feminista eta tokiko beste eragileekin, eta baliabideak zaintzea eta babestea, berdintasun-politikek aurrera egiten jarrai dezaten. Testu osoa: <https://labur.eus/0hy4spvu>



## Bisitak Octavia Ibarri eta Ignacio Maria Landari beren 100 urtebetetzetan

Carmen Díaz Gizarte Kohesioko zinegotziak Octavia Ibarra Pérez eta Ignacio Maria Landa Muñoz bisitatu zituen aurreko astean beren Algortako etxeetan, 100 urte bete zituztela eta. Lehena herrian jaio zen eta bertan bizi izan da bere bizitza osoan. Auzokide horrek bi seme, alaba bat, 7 biloba eta 5 birbiloba ditu. Bigarrena Bilbon jaio zen eta, gerra zela eta, ia bizitza osoa atzerrian eman ondoren, duela 8 urte itzuli eta herrian kokatu zen familiarekin. Alaba baten eta bi semeren aita da, eta biloba bat eta birbiloba bat ere baditu. Biek ohiko Aixerrotaren oroigarria eta lore sorta bat jaso zituzten.

## “Getxoko Sortzaileak”, 150.000 euro sormen-proiektuetarako

Getxo Kulturak *Getxoko sortzaileak* deialdiaren seigarren edizioa jarri du abian. Laguntza-programa honen helburua da obra artistikoak egiteko sorkuntza-prozesu espezifikoak garatu nahi dituzten getxotarrei laguntzea, bai eta udalerrri horri lotutako horrelako proiektuak garatzeko interesa duten Getxokoak ez diren pertsonei ere. Proposamenak telematikoki jasotzeko epea maiatzaren 4ra arte egongo da zabalik.

Deialdi honi atxikitako modalitate artistikoak zazpi dira: arte eszenikoak, ikus-entzunezko lanak eta bideoklipak, musika, literatura eta ilustrazioa, hezkuntzako edo bitartekaritzako proiektu kulturalak sortzea eta garatzea, ikusizko lanak eta obra plastikoak sortzea, bai eta kategoria horietan sartzen ez den beste edozein diziplina sortzaile ere. Sormen fasean egon beharko dute, osorik garatu gabe,

### A escena “Bendito silencio”

Aztiak konpainiak Javier Liñera getxotarraren *Bendito silencio* lana taularatuko du martxoaren 15ean, igandea, Romo Kultur Etxean. Ikuskizunerako gonbidapenak agortu dira eta 19:00etan hasiko da.

Begoña Ibañez, Virtudes Nogales eta Altami Torres dira antzezlanaren protagonistak, eta baldarke-riaren eta ironiaren artean aurrera egiten duten egoerak tartekatzen ditu, publikoaren konplizitatea bilatuz. Proposamen arina, hurbila eta erritmoa duena da, eta batzuetan isiltzea ere barregarria izan daitekeela erakusten du.

### Getxophoto, herri partaidetza

Algortako Dendak-ekin lankidetzan, Getxophotoko Herri partaidetza sailera argazkiak bidali nahi dituztenek, martxoaren 25era arte izango dute horretarako aukera. Oraingoan, maiatzaren 28tik ekainaren 21era egingo den jaialdiaren gaia Reset da, “sistema berrabiaraztera gonbidatzen gaituen tekla”.

Parte-hartzaile bakoitzak argazki bakarria bidali beharko du [ge-txophoto@gmail.com](mailto:ge-txophoto@gmail.com) helbidera. Algortako Dendak merkatari elkartearen erakusleihoetan erakutsiko diren hogeita hamar bat irudi aukeratuko dira [www.getxophoto.com](http://www.getxophoto.com)

eta eskatzaileak berak sortutako obrak izan beharko dira. Gehienez 48 proiektu aukeratuko dira, eta horietako bakoitzak 3.150 euro jasoko ditu. Gehienez ere bederatzila hilabeteko epea izango dute behin betiko sorrera aurkezteko.

Laguntza-deialdi honen gehienezko zuzkidura 150.000 eurokoa izango da.

Informazio gehiago eta oinarriak: [www.getxo-kultura.eus/deialdiak](http://www.getxo-kultura.eus/deialdiak)



### “Hamlet”, bertsio frenetiko, komiko eta musikala

Larunbat honetan, hilak 14, Guayomín Producciones konpainia Muxikebarriko oholtzara igoko da Shakespearearen tragediaren bertsio frenetiko, komiko eta musikala bat taularatzeko, klasikoa gaur egungo publikoari hurbiltzeko diseinatu. 20:00etan hasiko da eta sarreraren prezioa 12 eurokoa da.

Patricia Rodríguez, Arantxa Fernández Ramos eta Hugo Manso dira antzezlanaren protagonistak (horiek ere zuzendu eta idatzi dute antzezlan), eta drama eta absurdoa tartekatzen dituzte, eldarniozko eten eta bakarrizketen bidez.



### Sarrerak agortuta “El amor no se reproduce en cautividad” obrarako

Ostiral honetan, hilak 13, 20:00etan, Muxikebarrin, Gorka Mínguez eta Gemma Martínezek antzeztuko duten *El amor no se reproduce en cautividad* antzezlanerako sarrerak agortu dira.

Elkarrizketa zorrotzen eta egoera zentzugabe bezain ezagunen artean, errutinak estutzen duenean, itxaropenek pisatzen dutenean eta kairolek — benetakoak edo ale-

giakoak — ongi maitatzeko lekurik uzten ez dutenean gertatzen dena jartzen du mahai gainean lanak. Umorezko erretratu bat, maitasunak bizirik iraun dezan airea, mugimendua... eta drama pixka bat gutxiago behar duela gogorazten diguna.

Komedia garratz eta argitsu honek leku batera garamatza, non harremanak ia animaliak balira bezala ikusten diren zoo emozional batean, liluragarriak, aurreikusitak eta batzuetan basati samarrak.

### “Loa eta Laia” haurrentzako ikuskizuna

Muxikebarrin, igandean, hilak 15, *Loa eta Laia* haurrentzako ikuskizuna izango da. Haurrentzako eta familientzako euskarazko musika proposamen bat da, marrazki bizidunen serie arrakastatsutik eratorria, eta abesti originalak, umorea eta ohitura osasungarriak, errespetua, genero aniztasuna, bizikidetzeta eta eskola jazarpenaren aurkako begirada argia uztartzen ditu.

2 eta 7 urte bitarteko haurrentzat diseinututako emanaldia 18:00etan hasiko da, eta sarreraren prezioa 6 eurokoa da.

### OHARRA

Apirilaren 13tik aurrera eta beste abisu bat eman arte, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolako entzunaretoa itxita egongo da, areto hori hobetzeko lanak hasiko direla eta.

Hobekuntza lan horien ondorioz, auditorio horretan egiten diren Zine-Kluba eta Igandeko Haur Zinema zikloen proiektzioak Romo Kultur Etxeko areto nagusian egingo dira apirilaren 17tik eta 19tik aurrera, hurrenez hurren.

Bestalde, Musika Eskolak ikasturte amaierara arte aurreikusita dituen entzunaldi eta saio didaktiko guztiak Muxikebarrin egingo dira.



### Poesia libre da “Ese manantial de versos” lana, erraz ulertzeko eta irakurtzeko modukoa

Maria José Rodríguez García idazleak *Ese manantial de versos* lan berria aurkeztu du Algortako Kultur Etxean, Villamonten. Bertso-liburu libre, erraz eta eskuragarria da, eta emozioak, oroitzapenak eta eguneroko gauza txikien edertasuna ditu ardatz. Liburuak irakurlearekin sinpletasunaren eta sentikortasunaren bidez konektatzeko diseinatu dago, eta irakurketa hurbila eskaintzen du, gogoeta eta patxada bultzatzeko. “Bizitzaren gorabeherak haizete baten modukoak dira; batzuetan harrapatu egiten zaituzte eta beste batzuetan oso leun laztantzen zaituzte”, idatzi du.

# Eusfera ekimen berriak haurren unibertsoa euskaldunagoa izatera lagunduko du

Udalak, eta udalerriko EGIZU eta Bizarra Lepoan euskara elkarteek bat egin dute haurren unibertsoa euskaldunagoa izatea bilatzen duen Eusfera ekimenarekin. TAUPA euskaltzaleen mugimenduak antolatutako ekimen berria da, gurasoen euskararen erabileraren aktibazioa, sentsibilizazioa eta ahalduntzea lortzen laguntzeko. "Familia eta ikastetxe batzuk kezkatuta daude haurrek euskara erabiltzeko baldintzetan gero eta zailtasun handiago daudelako. Horregatik, euskararen erabilera txikiaren eta beraiekin egunerokoa partekatzen dutenen artean (gurasoak, familiako kideak, zaintzaileak...) sustatuko duten jarduerak aurrera eramaten lagundu nahi dugu, atmosfera euskalduna sustatze aldera", azaldu du Gorka Mostajo Euskara zinegotziak.

Eusfera 0 eta 12 urte arteko haurren familiei zuzenduta dago eta baliabideak eta tresnak eskainiko dizkie maiatzaren 7tik 17ra aipatutako hiru entitateek osatutako batzordeak sortuko dituen elkarguneetan. Etxeko haur eta gaztetxoan atmosferan euskarak gero eta presentzia handiagoa izateko.



tea da helburua, aisialdia, kultur kontsumoa, erreferenteak, kirola, etxeko hizkuntza praktikak... euskaldunagoak izan daitezten.

Ekimenaren nondik norakoak eta parte hartzeko moduak azaltzeko aurkezpenak izango dira datorren martxoaren 24an, 18:00etan, Andra Mari-ko Bentan, Romoko RKEko laugarren solairuan dagoen udal euskaltegian eta Algortako Aldai Patronatuan. Ekimenean interesa duten ikastetxeek, familien elkarteek eta orokorrean eragileek eta norbanakoek ere izena eman dezakete TAUPA mugimenduaren webgunean.

Eusfera programaren barruan izango diren jardueren artean Parkean Olgetan bereziak izango dira, maiatzaren 8an, 15ean eta 22an, Neguriko Gernika parkean eta Andra Mari-ko Malakate parkean (bietan 17:00etatik aurrera) eta Algorta San Nikolas plazan (18:00etatik aurrera), hurrenez hurren. Informazioa: [www.eusfera.taupamugimendua.eus](http://www.eusfera.taupamugimendua.eus)

## SARENESK emakume ekintzaileen sare egonkor gisa finkatu da

SARENESK programa, Getxolan-Udaleko Ekonomia Sustapena Arloak sustatua, EmakumeEkin lankidetzan, etapa berriari ekin dio, eta emakume ekintzaileen sare egonkor gisa finkatu da Getxon. 2025eko edizioaren eragin positiboaren ondoren, proiektuak ekimen puntual izateari uzten dio, eta udalerrian emakumeek gidatutako ekintzailetzarako erreferentziazko gune bihurtzen da.



2025ean, 50 emakumek baino gehiagok hartu zuten parte egin ziren hainbat ekintzatan: presakuntza-tailerrak, talde-saiok eta laguntza espezializatua. Programak uztartu zituen negozioak indartzeko tresna praktikoak eta ekintzailetzaren funtsezko alderdiak ikuspegi feministatik landu zituzten lan pertsonaleko eta kolektiboko espazioak.

Juanma Gonzalez Getxolan-Ekonomia Sustapeneko zinegotziak adierazi duen bezala, "ekitea ez da soilik negozio-plana diseinatzea edo merkataritza-estrategia hobetzea.

Emakume askorentzat, ekiteak berekin dakar esposizioarekiko beldurra kudeatzea, diruaren inguruko sinemenak zalantzan jartzea, lanaren benetako balioari egokitutako prezioak ezartzen ikastea, arriskuak hartzea edo zilegitasun profesionala aurkitzea beren ibilbideak beti aitortzen ez dituzten inguruneetan".

### Laguntza

SARENESK 2025eko edizioak laguntza integralean jarri zuen arreta. Parte-hartzaileek beren proiektuen dimentsio estrategikoa eta askotan hazkunde eta jasangarritasuna zailtzen duten

blokeo pertsonalak landu zituzten. Programaren ondoren jasotako balorazioek argi eta garbi islatzen dute sortutako inpaktua. Parte-hartzaileek talde-saioren indarra, konfiantza giroa eta lagun egite emozionalaren balioa nabarmendu zituzten. "Sortu dugun taldea oso baliotsua da", adierazi zuten ekintzailetzako batek.

Programak agerian utzi zuen Getxolanek urteak daramatzana egiaztatzen: emakume ekintzaileek dituzten zailtasunetako asko ez dira soilik teknikoak. Egitura- eta genero-faktoreek

zeharkatzen dituzte, hala nola autoexijentziak, erruak, gainkargak, berdintasunean negoziatzeko zailtasunak edo lana bera gutxiesteko joerak. Dimentsio horiek lantzeak, ongizate pertsonala hobetzeaz gain, eragin zuzena du negozioen jasangarritasun ekonomikoan.

### Sare egonkorra

2026an, SARENESK ambizio handiagoko eredurantz doa: Getxon emakume ekintzaileen sare egonkor gisa sendotzea, urtean zehar banatutako ekintzak eginez eta ikuspegi jarraitua emanez. Etapa berri horri esker, talde finkatuari laguntzeko espazioak mantendu ahal izango dira, landutako tresnak indartuz eta proiektuen benetako bilakaera denboran lagunduz. Esperientziak erakusten du aldaketa ez dela tailer isolatu batean gertatzen, prozesu iraunkorretan baizik; izan ere, prozesu horietan konfiantza, argitasun estrategikoa eta elkarrekiko laguntza sortzen dira. Informazio gehiago: <https://labur.eus/ez6ntqdn>

## Kirol Portuak 322 amarralekuren eta 24 lokalen kontratuak formalizatu ditu

Kirol Portuak 322 amarraleku-kontratu eta 24 lokal formalizatu ditu urteko lehen bi hilabeteetan, 460 ontzi eta 27 lokaletatik. Puerto Deportivo El Abra-Getxo Kirol Portua sozietateak zuzenean kudeatzen duen etapa berri honetan, otsailean %70eko erregularizazio-tasa lortu da lokaletan eta %90ekoa lokaletan.

Kirol Portutik gogorarazten da kontratazioak irekita jarraitzen duela, eta ezinbestekoa dela ho-

rreren zain dauden erabiltzaileek amarralekuen okupazioa erregulartzatzea, Portu Ustiapenaren Erregelamenduan aurreikusitako neurriak aplikatu behar izan aurretik.



## Aixerrota-Galea aldean bidegorri tarte berria

Udalak Gobernu Batzordean esleitu ditu Andra Mari-Aixerrota inguruan dauden ikastetxeak Galeako pasealekuko bizikleta-erreiarekin lotuko dituen bidegorri zati berri bat egiteko lanak. Pasealekuko bidegorria,aldi berean, Algortako erdigunera doanekin lotuta dago. Guztira 585 metroko luzera izango du egingo den bidegorri tarteak.

Konexio berri hori ikastetxeek beraiek eskatu dute, eta, era berean,

proiektua, azken urteotan udalerriri barruan bizikleten zirkulazioa hobetzeko Udala egiten ari den jardura ugarien artean kokatzen da. Jarduera horien helburua da, hain zuzen ere, Getxo osoan zehar bizikletaz mugitu ahal izateko sare orokor bat eratzea, auzoak lotuz.

Obrak apirilean hasiko dira, lanak gauzatzeko aurreikusitako exekuzio-epea zortzi asteak izango da eta esleipen-aurrekontua 89.036 eurokoa izan da.

# Getxon izango da berriro Laboral Kutxa Bilbao Surf Film Festival jaialdiaren inaugurazio ekitaldia

Getxo izango da, Bilborekin batera, Laboral Kutxa Bilbao Surf Film Festival jaialdiaren bi agertokieta-ko bat. Diziplina anitzeko ekitaldia da, nazioartean erreferentziazkoa, eta Udalak laguntzen du, martxoaren 18tik 22ra. Jaialdi honek, surf zinemarako plataforma paregabea izateaz gain, artea, networkinga, tailerrak, kontzertuak eta parte hartzeko jarduerak ere biltzen ditu.

Martxoaren 19an, osteguna, 19:00etan, inaugurazio gala egingo da, non, beste ekitaldi batzuen artean, Euskal Surflari Onenaren saria emango den, eta Igor Bellido donostiarraren "Ride of a Lifetime", "Hono", "Violeta" eta "Iki-gai" filmak proiektatuko diren. Surfaren kultura eta euskal kostaldeko artisautza batzen dituen ikus-

-entzunezko pieza da, itsasoarekin eta lurraldearekin harreman estua duten pertsonen bidez. Helburua iraunkortasunaren, identitatearen eta sormenaren balioak ikus-



tzunezko hizkuntzaren bidez zabaltzea da.

## Pro jardunaldia

Aurreko egunean, asteazkenean, hilak 18, Tiki Toki Zentroa surfaren eta zinemaren industria konektatzera berariaz bideratutako jaialdiaren gune bihurtuko da. Jardunaldi profesional horretan, 10:30etik aurrera, Aketza Sanchez (Plentziako surf eskolaren eta Goazenup elkartearen sortzailea) eta Mikel Garcia eta Ibai Rider (ikus-entzunezko ekintzaileak eta Pushen sortzaileak) sortzaileek parte hartuko dute.

Informazio gehiago [info@bilbao-surffilmfestival.eus](mailto:info@bilbao-surffilmfestival.eus) webgunean eta <https://bilbaosurffilmfestival.eus/> webgune ofizialean.



## Hipopresibo tailerra 60 urtetik gorakoentzat, dohainik

Zahartze aktiboari arreta emateko programazioaren testuinguruan, Getxo Kirolak-ek hipopresiboetara eta zoru pelbikoari buruzko tailerra antolatu du 60 urtetik gorakoentzat, dohainik. Lan hipopresiboak gune pelbikoa, sabelaldea eta gorputz-jarrera eta -kontrola indartzen laguntzen du.

Tailerra Gobelako kiroldegian egingo da martxoaren 27an (ostirala), 10:00etatik 11:30era. Tailerrean parte hartzeko interesa dutenek izena eman dezakete 747 439 545 telefonora deituz.

## Belaren promesa gazteak Abran

Euskal belaren ehun gazte inguru bilduko dira Abrako uretan aste-buru honetan, larunbata 14 eta igandea 15, OptiGetxo-José Luis Azquetaren Oroimenezko Estropadan parte hartzeko. Marítimo del Abra elkarteak (RCMA-RSC) eta José Luis de Ugarte Bela Eskolak antolatuta, Udalaren laguntzarekin, beste erakunde batzuen artean, lehiaketa hau Optimist modalitateko Espainiako Txapelketarako proba izango da, bi aste geroago agertoki berean egingo dena.

Estropadarako hiru kategoria ezarri dira: 11 urtez azpikoak, 13 urtez azpikoak eta 16 urtez azpikoak, eta sei txanda programatu dira, hiru lehiaketa-egun bakoitzeko. Euskal Ligarako txapelketa baliagarria da.

Bestalde, Carmen Galdos, Anna Kyselova, Maria Urizar, Teresa Ojembarrena eta Natalia Chavarrik osatutako RCMA-RSCko tripulazio anfitrioiak irabazi zuen joan den asteburuan Abran jokatu zen VII. EKP Women's Cup-Liga Iberdrola, J-80 klasean.



## Abierto el plazo para presentar las solicitudes


# Getxo Kirolak-ek 1.297.800 euro banatuko ditu aurten ere herriko klub eta kirolarientzako diru-laguntzetan

Getxo Kirolak-ek herriko klub eta kirolariek aurtengo diru-laguntzak eskatzeko epea ireki du. Guztira, 1.297.800 euroko laguntzak emango dira, hau da, iazko zenbateko bera. Diru-laguntza horien helburua da klubei eta elkartei laguntzea oinarrizko kirola eta kirol federatua sustatzera bideratutako jardueratik eratorritako ordainketei aurre egiten, bai eta banakako lehiaketetan parte hartzen duten errendimendu handiko tokiko kirolariei ere.

Modu horretan, diru-laguntza honela banatuko da: oinarrizko kirolak 260.000 euro jasoko ditu; lehiaketako jardueren eta errendimenduko kirolaren artean 795.000 euro banatuko dira; ekitaldiak antolatzeko 228.000 euroko diru-laguntza izango da; herri kirolak sustatzeko 10.000 euro emango dira; eta emakumeen kirola bultzatzeko beste 2.000 euro bideratuko dira. Era berean, aurreikusitako gabeko lehiaketetan parte hartzeko 1.300 euro emango zaizkie interesatuta dauden elkartei; 500 euro gordeko dira muturreko kiroleko modalitateetan parte hartuko duten kirolarientzat; eta, azkenik, 1.000 euroko laguntza emango da herriko jaietan antolatutako kirol-ekimenaren bat bultzatzeko.

Laguntzak emateko hainbat balorazio-irizpide bete behar dira, eta, horien artean, ondorengoak nabarmentzen dira: emakumeen kirola bultzatzea, euskara sustatzea eta elkarte-sarea udalerriko kirol-politikan inplikatzeko eskola-kiroleko programen bitartez.

Argibide gehiago Getxo Kirolak-en webgunean.



## Kirol campusak Aste Santuan

Getxoko kirol elkarteek 15 campus antolatu dituzte Aste Santurako, honako modalitate hauetan: gimnastika erritmikoa, saskibaloia, atletismoa, futbola, irristaketa, igeriketa, xakea, kirol egokitua, patin-hockeya, txirrindularitza, irristaketa artistikoa eta bela. Getxo Kirolak-ekin batera sustatuta, ekimenaren helburua bikoitza da: kirola eta aisialdi osasungarria sustatzea eta eskolako oporraldian familia getxotarrei lana eta denbora libre uztartzea erraztuko dizkieten alternatibak eskaintzea. Informazio gehiago Getxo Kirolak-en webgunean.

# Udal talde politikoaren iritzia



## GETXO, EGONKORTASUNA ETA ILUSIOA

Kide berriak dituen lantalde berrituak ilusio berritua ere badauka eta, horri esker, hain zuzen ere, legegintzaldiko azken urtea hasten ari dela, EAJ-PNV udal-taldeak Getxoko Udalean daukan ardura sendotu da. Udal-gobernua EAJ-PNVko hiru zinegotzi berri daude: Aingeru Torrontegi, Carlos Sergio eta Elisabete Basañez. Dagoeneko buru-belarri sartuta daude kudeaketa arduratsu eta zorrotzean, Getxoko biztanleen egonkortasuna eta ongizatea bermatu ahal izateko.

EAJ-PNV udal-taldea politika erabilgarriaren aldekoa da, baliabideak auzoetarako hobekuntza erreal bihurtzeko helburu argiarekin. Udalak ia 4 milioi euro dauzka oinarriko zerbitzuak, segurtasuna eta udal-ekipamendua indartzeko.

Azkenengo Osoko Bilkuran, 3,8 milioi euro baino gehiagoko kreditu gehigarria one-

tsi dugu udalerriko zenbait puntutan jarduketa estrategikoak egiteko xedearekin. Besteak beste, Romon lehen mailako hornidura-sarea hobetuko da eta Sarrikobason saneamendu-jarduketak egingo dira, funtsezkoa den zerbitzu baten fidagarritasuna sendotzeko eta etorkizuneko gorabeherak prebenitzeko. Esku-hartze horiek, beti ikusgarriak izan ez arren, segurtasuna eta jarrakortasuna bermatzen dute. Ereaga eta Portu Zahararen arteko ezpondak egonkortzeko lanek segurtasuna bermatuko dute, Miramarrerako sarbideen hobekuntzek mugikortasuna erraztuko dute eta larrialdietako ibilgailuak sartu aha izatea bermatuko dute, udalerriko zenbait gunetan zoladurak berrituko eta asfaltatuko dira, San Nikolas inguruko komun publikoak eta oinezkoentzako sarbideak hobetuko dira, eta Algortako Basoa Udal Ludotekaren ekipamendua handituko da. Azken hori, gainera, umeei eta haien familiei zuzendutako zerbitzu pu-

bliko garrantzitsua da.

Jarduketa horiek eta beste batzuk garaiz eta behar bezala egitea garrantzitsua denez gero, 3,8 milioi euroko kreditu gehigarria onetsi da. Tresna horri esker, proiektuen epe errealak kontuan izanda erabil ditzakegu baliabide ekonomikoak, hitz emandako inbertsioak gauzatea bermatze aldera. Oso beharrezkoa da hori.

Getxoko EAJ-PNV udal-taldeak, ilusioz betetako lantalde berrituarekin, apustua egiten du erantzukizuneko lan zorrotzaren alde, eta xedea da erabiltzeko moduko hobekuntza zehatz eta ikusgarri bihurtzea Udaleko egonkortasun ekonomikoak, auzoak indartu daitezzen. Gure iritziz, baliabide horiek aktibatzea udal-politika ulertzeko daukagun moduaren ondorioa da, planifikazioa, zorrotzetasuna eta auzo bakoitzarekin daukagun konpromisoa oinarri.



## GETXON ERAGINA DUTEN ERABAKIEN AURREAN, ALKATEAREN PASIBOTASUNA ETA LIDERGO-GABEZIA

Aste bereziki kezkarriak izaten ari dira Getxorentzat, udalerrian eta getxoztar ugarirengan bete-betean eragina duten erabakiak direla-eta. Hilabete eskasean jakin izan dugu Eusko Jaurlaritzak **Larrañazubi ikastetxea ixteko** asmoa daukala. Erabaki horren aurrean, jarduneko alkateak erantzun **mugatuak** eman ditu eta adierazi du «Eusko Jaurlaritzaren eskumena» dela.

Hala, ikastetxearen defentsaren lider gisa azaldu beharrean, **jarrera pasiboa** izan du.

Horrez gain, **Bilboko Portuko Agintari-**

**tzak** baimena eman du **SADER** enpresa Galearen aurreko poligono batean ezartzeko. Aurkeztutako alegazioak gorabehera, gobernu taldeak **ez du jarrera batere irmoa** izan Getxon isuri kaltegarriak eragin ditzakeen instalazioari dagokionez. Egoera antzekoa da **Lamiako ibai azpiko** proiektuaren kasuan. Izan ere, ukitutako biztanleak oraindik ere kezkatuta egon arren, Udala berriz ere **bigarren planoan** kokatu da. Alkateak ez entzunarena egin dio egoerari eta, horrenbestez, auzokideek **babesgabezia-sentsazioa** daukate, eta udalerrian **ondoeza** areagotu egin da. #Andrade2027



## ehbildu

## ETXEBIZITZA EZ DA NEGOZIOA: GETXOKO PISU TURISTIKOEN ESPEDIENTEAK BERRIKUSTEA ESKATU DUGU

Etxebizitza da Getxok gaur egun pairatzen duen arazo larrietako bat eta, aldi berean, getxoztarren kezka nagusietako bat. Alokairuen eta etxebizitzaren salmenta prezio altuen ondorioz, gero eta herritar gehiagok herria utzi behar izaten dute. Izan ere, Getxon Euskal Herri osoko etxebizitza preziorik garestienetakoak ditugu, eta horrek zuzenean baldintzatzen du herriko bizitza eta etorkizuna.

Testuinguru honetan, azken urteotan gero eta ohikoagoa bihurtu da pisu turistikoak irekitzea. Hala ere, Getxoko udal ordenantzak argi ezartzen du non eta

zein baldintzatan egin daitekeen jarduera hori: Portu Zaharrea, esaterako, debekatu dago pisu turistikoak irekitzea, eta udalerriko osoan jarduera horretarako baldintza zorrotzak ezartzen dira. Hori dela eta, ulertezina da gaur egun oraindik ere ordenantzaren aurka irekita dauden pisu turistikoak egotea.

Adibide argia Portu Zaharrea dago. Bertan pisu turistiko ilegalak daude irekita, nahiz eta Getxoko Udalak jarduera horien aurkako txostena egin. Hala ere, txosten horiek berandu iritsi zirenez, Jaurlaritzak ez dio lizentzia kendu etxebizitza turisti-

ko horiei. Egoera honek agerian uzten du udal kudeaketa kaxkarrak ondorio zuzenak dituela: etxebizitza gisa erabili behar-ko liratekeen espazioak negozio turistiko-rako erabiltzen ari dira, eta hori gertatzen da udalak berak onartutako ordenantza behar bezala betearazten ez duelako.

Eta hau ez da kasu isolatua. Antzeko egoeran dauden beste hainbat pisu turistiko daude, udalaren jardun geldoaren ondorioz gaur egun ere irekita mantentzen direnak. Egoera honek zalantza jartzen du araudia betearazteko benetako borondatea, eta bitartean, herritarren

interesak bigarren mailan geratzen dira. Horregatik, Jaurlaritzari eskatuko diogu Getxoko pisu turistikoaren espediente administratiboak berrikusteko, udal ordenantzaren aurka dauden etxebizitza horiei lizentzia kentzeko.

Azken finean, etxebizitza ez da negozio hutsa. Etxebizitza eskubide bat da, eta herritarren bizitza baldintzatzen duen oinarriko beharra. Azkenaldian modan jarri da pisu turistikoak irekitzea, baina joera horrek ondorio larriak izan ditzake, besteak beste prezioen igoera, auzoen eraldaketa.



## FEMINISMOAREKIN KONPROMISOA

Borroka feminista eguneroko lana bada ere, martxoan **hausnarketa** irmotzeko hila-betea da, **emakumeen gorputza eta bizitza ukitzen duten indarkeriak ikusgarri** egiten jarraitze aldera. Getxoko PSE-EEK **agenda feminista arduratsua, hurbila eta eraldatzailea** sustatzen jarraitzen du, Udaleko **Berdintasun Zerbitzuaren kudeaketaren** bidez. Martxoak 8, **Emakumeen Nazioarteko Eguna**, dela-eta,

Udalak hilabete osoan zehar programazio berezia antolatu du **aitormena egiteko emakumeen borrokei eta erresistentziei, indarkeria matxista eta patriarkalen aurrean**. Aurten, gure helburua da **indarkeria horiek justifikatzeko eta ukatzeko edozein arrazoiri zilegitasuna kentzea**. Horregatik, Getxoko biztanle guztiei gonbita egiten diegu goza dezaten **GU-RARIko** (Getxoko Emakumeen Etxeko)

programazioaz. Antolatutako jardueren artean, nabarmena da argazkien eta ikus-entzunezko materialen erakusketa (martxoaren 30era arte ikusgai). Bildu egiten du Guatemalako gerraren biktima izan diren emakumeen memoria eta ikusleei ere **zuzentzen da zenbait gai oinarri hartuta, hala nola estraktibismoa, kolonialismoa eta emakumeen gorputzetan izandako eragina**.



## M8 ETA MEMORIA HISTORIKOA

Andreak Getxoko historian izandako rolari bisualtasuna eman behar dio Udalak. EAJ-PNVk, aitzitik, uko egin dio Neguri Langile parkeari **Marisabel Parkea** izena jartzeari; hala, ez dio aitortzen egin nahi 70eko hamarkadan berak egindako borrokari espazio hori publikoa izan zedin. Horregatik, aurten, M8an, berresten dugu udalerrira aldatu duten eta hurrengo belaunaldien eredu diren andreen memoria historikoarekin daukagun konpromisoa.